



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

## MEMORIA 2008KO UDAL AURREKONTUA

Honakoa izenpetzen duen Udalburuak memoria hau idatzi du, indarreko legeriak ezartzen dituen aginduak betez. 2008ko ekitaldirako udal aurrekontua osatzen duten zatietako bat da Memoria hau eta honako ezaugarriak ditu:

### JARDUN-ILDO NAGUSIAK

Aurrekontu proiektu honetan Udalbatzaren lan-ildo nagusiak hauexek dira:

1. Hiriko bideak hobetzeko inbertsioak: Zelaieta parkearen ingurunea urbanizatzeko proiektua, Andrandi, Gane eta Zezilia Gallartzagoitia kalearen urbanizazioa. Horretaz gain, hiriko altzariak hobetzen eta aparkatzeko leku gehiago jartzeko lanekin jarraituko da.
2. Bizitegi-alde berrien garapena bultzatzea, Zornotzaren hazkundera orekatua izan dadin eta etxebizitza babestua eskuratzeko aukerak errazteko.
3. Udalaren kirol zerbitzuak sustatzea eta “kirola denontzat” politikarekin aurrera jarraitzea; horren erakusgarri izango da Larreako kiroldegia eraberritu eta handiagotzeko proiektua, aldagelak eta gimnasioa ere berriro diseinatuko direlarik. Gainera, herriko beste leku batzuetan ere egin nahi dira kirol ekipamenduak.
4. Inbertsioak egitea udalerriko auzo eta hiri-inguruetan, Euba, Etxano, Boroa eta beste gune batzuetako oinarrizko beharrianak asetzen diren neurrian.
5. Herritarrei administrazio-zerbitzuak emateko leku egokia eta funtzionala izatea herrian; hori gauzatzeko, Udaletxea eraberritu eta handiagotuko da.
6. Nafarroa Zentroak garrantzi handiko zerbitzua ematen die adinekoei eta urritasunen bat duten pertsoneri; beraz, behin zentroa finkatuta, zentroaren beraren gastu arrunta handituko da.
7. Udalerriko elkarte-sarea bultzatzea; horretarako, herriko kultur, gizarte eta kirol elkarte eta taldeen ekimenetarako laguntza ekonomiko handiagoa emango du Udalak.

2008rako Udal Aurrekontua 26.883.692,00 €koa da, 2007. urtekoa baino %6,41 gehiago. Aurreikusitako gastuetarako ez da zorpeketarik izan. Diru-sarrerara arruntei dagokien gutxi gorabeherako zenbatekoa 2007koa baino handiagoa da. Diru-sarrerara arrunten artean hauexek nabarmentzen dira: Ondasun Higiezinaren gaineko Zerga, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zerga, Ekonomia Jardueren gaineko Zerga eta



**Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia**

azkenik, Zerga Itunduetako partaidetzak (Udalkutxa). Halaber, emandako diru-laguntzak soilik INEMeko diru-sarrera gisa esleitu dira, aurrekontua diruz lagundutako proiektu bakoitzarekin aldatzea aurreikusiz. Diru-sarrera arrunten bidez gastu arruntak eta aurreikusitako kapitaleko gastuaren erdia baino gehiago finantzatu dira. Kapitaleko diru-sarrerak hirigintzako aprobetxamenduen %10etik eratortzen diren partzelak besterenduz lortzen dira eta horien diru-kopurua 2007koa baino nahiko txikiagoa da. Halaber, Izartu Planaren barruan Udalarri emandako kapitaleko diru-laguntza sartu da aurrekontuan.

## **GASTUEN AURREKONTUA**

Gastu arruntei dagokienez, langileen gastuetarako kredituak aurreikusi dira 2007. urteko ordainsarrietan oinarrituz; langileen urteko ordainsari osoei dagokienez, %2ko igoera aurreikusi da, berariazko osagarriaren %1 eta produktibitateko fondo bat.

Horretaz gain, sail desberdinetako arduradunek eskatutakoa aintzat hartuz, gaixotasun-bajak direla eta aldi baterako langileak kontratatzekeo partida nahikoak esleitu dira.

Arduradunek eskatuta, ahal den neurrian, ondasunak erosteko kredituak esleitu dira, esaterako, zerbitzuak mantentzeko.

Oro har, 2007ko aurrekontuaren aldean, 2008ko Gastu Aurrekontuaren aldaketa nagusiak hauexek dira:

### **I. kapitulua.- Langileen ordainsariak**

- Plaza berriak sortuko dira:
  - Udaltzain bat.
  - Informatikari laguntzaile bat.
  - Obretako lantaldeko peoia.

2007ko aurrekontuarekiko, kapituluak, guztira, %6,03ko igoera du.

### **2. Kapitulua – Ondasun arrunten eta zerbitzuen erosketak.**

2007ko aurrekontuarekiko, kapituluak, guztira, %3,23ko jaitsiera du.

Partida batzuetan beheranzko doikuntzak egin dira, aurrekontuan argi eta garbi azaltzeko zein diren jaramon egin beharreko benetako beharrianak. Doikuntza horiek, honakoa izenpetzen duenaren iritziz, ez dute inola ere zerbitzuen kalitatea eta kopurua murrizten; aitzitik, baliabideen esleipena eta gastuaren arrazoizko erabilera hobetzen da horri esker.

### **4. Kapitulua.- Transferentzia arruntak.**



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

2007ko aurrekontuarekiko, kapituluak, guztira, %8.27ko igoera du.

Kultur Fundazio Publikoaren diru-laguntza berdin mantentzen da, ahalegina 2007. urteko aurrekonturako egin baitzen. Kirol Fundazio Publikoaren diru-laguntza handiagoa da. Larreako kiroldegia zaharberritu eta handitzeko proiektuak aparteko gastu arrunta egitea dakar ezinbestean. Bestalde, herriko beste alde batzuetan kirol ekipamendu berriak egiteko asmoa dago.

Elizbarrutiko Misiolari Karmeldarrek Kongoko Errepublika Demokratikoan duten Katindo Misioarekiko elkartasun-konpromisoari eutsiko zaio eta horretarako, 25.000 € emango da. Halaber, Sahararen aldeko Elkarteen Koordinakundearekiko elkartasun-konpromisoa mantentzen da, eta horretarako, 11.000 € emango zaio. Gainera, elkartasunerako konpromisoa hartu da “Oscar del Perú” GKerekin urte anitzeko proiektu baterako (35.934,41 € 2008. urterako eta 17.967,20 € 2009. urterako). Hirugarren Munduari elkartasuna adierazteko gainerako diru-laguntzak Euskal Fondoari emango zaizkio, garapenerako nazioarte mailako elkarlan-ekimenak lagundu eta bultzatzeko tokiko euskal erakundeen elkarteari, alegia.

Elkarlanerako konpromisoa hartu da, baita ere, Urritu Fisiko eta Psikikoen Elkartearekin (78.500 €), Merkatarien Elkartearekin (30.000 €) eta Ibilaldiarekin (40.000 €).

## **6.- Kapituluak -Inbertsio errealak.**

Inbertsio garrantzitsuenak dagokion inbertsio-planean daude adierazita:

<b>FUNTZI ONALA</b>	<b>EKONO MIKOA</b>	<b>Deskribapena</b>	<b>Hasierako kredituak</b>
4440	60101	INGURUMENA. BIDEGORRIAREN PROIEKTUA BURUTZEA	160.000,00
4440	60102	INGURUMENA. TXIRRINGA-BIDEEN PLANA	90.000,00
4440	60103	INGURUMENA. SAN JUAN OFRENDO PARKEAREN PROIEKTUA	20.000,00
4440	60104	INGURUMENAMINIZENTRAL HIDRAULIKOAREN HEZKUNTZAKO ETA ENERGIA PROIEKTUA	20.000,00
4321	62200	ERAIKIN PUBLIKOAK. INBERTSIOAK EGUZKI PANELETAN	35.000,00
4321	62206	ERAIKIN PUBLIKOAK. UDALETXEA	300.000,00
4410	62700	UR-HORNIDURA ETA BANAKETA. PROIEKTUAK (Epalza, Cloración, Euba)	120.000,00



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

4430	62201	HILERRIA. NITXOAK ESKURATZEA	3.000,00
5111	60105	HIRIKO BIDE PUBLIKOAK. ANDRANDI URBANIZAZIOA	673.791,00
5111	60109	HIRIKO BIDE PUBLIKOAK. BEHIN- BEHINEKO APARKALEKUA GANEN	305.000,00
5111	60111	HIRIKO BIDE PUBLIKOAK. HIRIGUNEA OINEZKOA IZATEA. TOPAKETA	1.540.000,00
5111	60122	HIRIKO BIDE PUBLIKOAK. ZEZILIA GALLARTZAGO KALEA ESTALTZEKO PROIEKTUA	300.000,00
5111	60123	HIRIKO BIDE PUBLIKOAK. ZUBIZABALAN IRISGARRITASUN BALDINTZAK HOBETZEKO PROIEKTUA	10.000,00
4211	62203	HERRI IKASTETXEAK. ESKOLAURREKO PATIOA ESTALTZEA	50.000,00
4523	62201	KIROLDEGIA. KIROLDEGIA ERABERRITU ETA HANDITZEA	2.049.045,00
4523	62202	KIROLDEGIA. EUBAKO FRONTOIA ZAHARBERRITZEA	40.000,00
4523	62203	KIROLDEGIA. GURE KIROLAK ZENTRORAKO PROIEKTUA JAUREGIBARRIAN	40.000,00
1210	62600	INFORMAZIO PROZESUETARAKO EKIPOAK	20.000,00
1222	62900	BAKE EPAITEGIA. BESTE INBERTSIO BATZUK	2.000,00
2220	62304	UDALTZAINGOA. TRESNAK ETA BEHARREZKO GAUZAK	1.000,00
2220	62501	UDALTZAINGOA. ALTZARIAK	1.000,00
<b>Guztira .....</b>			<b>5.779.836,00</b>

Kapitulua, guztira, 5.779.836 €koa da eta %17,76ko igoera du 2007ko aurrekontuarekiko.

Lurzoruaren Udal Ondareari (LUO) 1.283.300 euro esleitu zaizkio aurrekontuan, ekainaren 30eko 2/2006 Lurzoru eta Hirigintzako Legeak ezartzen duen gutxienekoa baino askoz gehiago (Diru-sarreraren 1. eta 2. Kapituluen baturaren %10, hots, 749.580 euro). Kapital-eragiketen eranskinean gastuak ageri dira; horiei loturiko baliabideak LUOren orubeak besterenduz lortzen dira eta baita ere, hirigintzako aprobetxamenduen %10en monetarizaziotik, LUOren xedeak era honetan bete ahal izateko:

- Udal ekipamendu kolektiboak eraiki, zaharberritu edo hobetzea, loturiko baliabideen %65,57an. Larreako kiroldegia birmoldatzea.



Amorebieta-Etxanoko Udala  
Bizkaia

## 7. Kapituluak.- Kapitaleko Transferentziak.

Kiroleko Fundazio Publikoa: 10.000 € instalazioak egiteko.  
10.000 € kultur ondarea eta historikoa zaharberritzea sustatzeko.

Kapitulua, guztira, 20.000 €koa da eta %93,768ko igoera du 2007ko aurrekontuarekiko.

### **DIRU-SARREREN AURREKONTUA**

Zerga Ordenantzak, itundu gabeko zerga, zerga itundu eta legez dagokien zergetako partaidetzak aintzat hartuz, 2008an likidatzea aurreikusita dauden zenbateko guztiak esleitu dira.

Hona hemen diru-izendapen nagusiak:

-Landa eta hiri izaerako ondasun higiezin gaineko zerga.....	1.786.272
-Ibilgailuen gaineko zerga.....	915.356 €
-Ekonomi jardueren gaineko zerga.....	2.000.000 €
-Eraikuntzen gaineko zerga.....	2.444.167 €
-Zabor-bilketa.....	640.800 €
-Sanamendua .....	764.114 €
-Ur-hornidura.....	1.000.000 €
-Erabilera publikoko lurpearen okupazioa.....	470.000 €
-Hirigintzako erabilerak.....	754.000 €
-Partzelak besterentzea.....	529.300 €
-Zerga itunduetako partaidetzak (Udalkutxa).....	11.196.006 €
-Gizarte Ongizateko transferentziak.....	1.084.500 €
- INEMeko transferentziak.....	493.198 €
-Banku gordailuen interesak.....	425.000 €

2008ko aurrekontuetarako kapitulu bakoitzeko diru-sarrerak, guztira, hauexek dira:

-1. kapituluak – Zerga zuzenak .....	5.051.628 €
-2. kapituluak – Zeharkako zergak .....	2.444.167 €
-3. kapituluak – Tasak eta bestelako diru-sarrerak.....	4.131.836 €
-4. kapituluak - Transferentzia arruntak.....	12.826.670 €
-5. kapituluak – Ondarearen diru-sarrerak .....	437.300 €
-6. kapituluak – Inbertsio errealak .....	1.283.300 €
-7.kapituluak – Kapitaleko transferentziak .....	673.791 €
-8. kapituluak – Finantzako aktiboen aldaerak .....	35.000 €

**DIRU-SARRERAK GUZTIRA.....26.883.692 €**

Amorebieta-Etxanon, 2007ko abenduaren 13an  
ALKATEA



**Amorebieta-Etxanoko Udala**  
**Bizkaia**

Sin.: David Latxaga Ugartemendia